



JAPONIA, KOREAKO ERREPUBLIKA, ANDORRA, SUITZA eta MONAKOKO GIDABAIMENAREN TRUKEA

EZ DIRA TRUKATZEN:

- ESPAINIAN EGOILIAR LEGALA IZANEZ HITZARMENA SINATU ONDOREN LORTUTAKO BAIMENAK. (*KOREAKO ERREPUBLIKAREN KASUAN, BAIMENA LORTU DEN DATA BIZILEKU LEGALEKOA BAINO GEROAGO IZAN DAITEKE*).
- GAI HONETAN ESPAINIAREKIN HITZARMENIK EZ DUTEN BESTELAKO HERRIALDEETAKO BAIMEN BAT TRUKATZETIK ERATORRITAKO BAIMENAK.

DOKUMENTAZIOA

- 1º. **ESKAERA:** inprimaki ofizialean Trafiko-Buruzagitzetan eta TZNaren web orrialdean eskura dagoelarik (www.dgt.es) non agertzen den adierazita ez dizutela kendu gidatzeko eskubidea eta ez duzula EBko edo EEKko beste baimenik eskaturikoaren mota berekoa edo murriztua, kendua edo baliogabetua eta eskatzaileak trukatu nahi den baimenaren benekotasun, baliozkotasun eta indarrez erantzule giten den.
- 2º. **II.3 TASA:** 28,30 €. Hiru era tasak ordaintzeko: internetez www.dgt.es helbidean, banku-txartelaz Trafikoko Buruzagietan eta kontu-korronteaz edo eskudirutan finantza-erakundeetan (791 inprimakia eskuragarri dago Buruzagietan eta hemen: www.dgt.es)
- 3º. **NORTASUN ETA EGOITZAREN EGIAZTATZEA:**
 - **NAN edo PASAPORTEA:** originala indarrean.
 - **EGOITZAREN BAIMENA edo bere herrialdeko NORTASUN AGIRIA edo PASAPORTEA ATZERRITARREN ERROLDA ZENTRALEAN INSKRIBAPENAREN EGIAZTAGIRIAREKIN** batera atzerritar komunitarioentzat: originala indarrean.
 - **EGOITZA BAIMENA** komunitarioak ez diren atzerritarrentzat: originala indarrean.
- 4º. **GAITASUN PSIKOFISIKOKO TXOSTEN TELEMATIKOA** Gidarien Erregistroan **GIDARIEI ARAKETAK EGITEKO ZENTRO** batek jasota.
- 5º. **GIDABAIMENA:** originala indarrean eta fotokopia.
- 6º. **ARGAZKIA:** Atzealde lisoko kolorezko 32 x 26 mm.eko jatorrizkoa, aurretik hartuta, buru estalgabetuaz eta kristal iluneko betaurrekorik gabe edo pertsonaren identifikazioa eragotzi edo oztopa dezakeen bestelako arroparik gabe.
Erljioa dela-eta ilea estalita daramaten eskatzaileak badaude, beloaz eginiko argazkiak jasoko daitezke baina, onartuak izateko, derrigorrezko baldintza hau bete behar da: aurpegiaren obaloo ilearen sortzetik kokotsera arte guztiz estalgabetuta egon behar da, pertsona identifikatzea galarazi edo oztopa ez dezaten.
- 7º. **ARGAZKI-TALOIA:** beteta eta sinatuta dagokion laukitxo barruan.

BALIZKO BEREZIAK

KOREA: kontsulatu batek edo Enbaxadak egindako baimenaren itzulpen ofiziala.

JAPONIA: baimenaren itzulpen ofiziala

ORDEZKARIAK: Agiriak baimenaren titularrak aurkeztu ezean, ordezkarietat joko duen pertsonak bere identifikazio-agiri ofiziala zein interesdunak emateko ahalmena aurkeztu behar izango ditu izapidea egiteko, non doakotasuna agertzen den.

Erroldatze-helbide eta EJGZko frogagirien aurkeztu ordez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak informazio hori telematikoki ziurtatzeko berariazko baimena eman daiteke. Horretarako, izapide-eskabideko formularioan dagokion laukitxo markatu, edo



MINISTERIO
DEL INTERIOR



egoitza elektronikoan edo Trafikoko Buruzagitzetan eskuragarri dagoen berariazko baimen-formularioa bete behar duzu. Informazio onargarria jasotzen ez bada,egin daitekeen konponketak agiriak aurkeztea behar izango du.

(Eguneratua: 22/06/2018)